



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urriaren 31

87. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen konpon dezan Sarrigurengo ikastetxe publikoan dagoen leku faltaren arazoa. Hezkuntza Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan esnearen sektorea defendatze aldera. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012ko martxoaren 22an onetsitako zenbait foru agindu atzera bota ditzan. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona guztientzat ziurta dezan GIBaren probak giteko aukera. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen presta dezan bitartekaritza plan bat, hipoteka ordaindu ezin duten familien etxebizitza-utzarazpenen prebentziorako. Sustapen Batzordeak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloan lanaldi-luzapena aplikatzearekin zerikusia duen orotan kontuan har ditzan esparru bakoitzaren ezaugarriak. Osasun Batzordeak bazter utzia (7. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lantaldea, 2012ko Gabonetako aparteko lansaria kentzeari buruzko ekimen parlamentarioak direla-eta dauden aukera desberdinak aztertzea. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsia (8. or.).
- Lantaldea, Nafarroan dauden parte-hartze demokratikorako moduen egungo egoera aztertzea. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (9. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2012ko urriaren 19an onetsitako erabakiak (10. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena. Proposamen hori Socialistas de Navarra

parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu

zuen, eta 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta

2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak

aurkeztu zuen, eta 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu zuten, eta 2012ko irailaren 25eko 75.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen konpon dezan Sarrigurengo ikastetxe publikoan dagoen leku faltaren arazoa.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2012ko urriaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen konpon dezan Sarrigurengo ikastetxe publikoan dagoen leku faltaren arazoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du premia konpon dezan Sarrigurengo ikastetxe publikoan dagoen leku faltaren arazoa; izan ere, Eguesibarren hazkunde demografikoari buruzko aurreikuspenen arabera, 2013-2014 ikasturtean ez da egonen eskariari aurre egiteko adina ikasposturik."

Iruñean, 2012ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan esnearen sektorea defendatze aldera.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2012ko urriaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan esnearen sektorea defendatze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Gobernua premiatzea Nekazaritza Ministerioari eska diezaion Nafarroako abel-

tzainak Ekoizleen Erakunde gisa eratzeko aukera azter dezan.

2. Zuzeneko laguntzen plan bat onestea, esnea ekoizten duten abeltzainek pairatzen ari diren ekoizpen-galera konpentsa dezaten.

3. Behar diren egiturazko neurri guztiak aztertu eta hartzea, abeltzaintza ustategien itxiera eragozteko."

Iruñean, 2012ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012ko martxoaren 22an onetsitako zenbait foru agindu atzera bota ditzan.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2012ko urriaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012ko martxoaren 22an onetsitako zenbait foru agindu atzera bota ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados Nafarroako Gobernuak arlo honetan

izan duen jokabidearekin, zeren eta, neurri batean, segurtasun juridiko eza txertatzen baitu administrazioen jokabidean, eta horrek larriki kaltetzen du gai publikoen kudeaketa egoki eta eraginkorra.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrez aipatu ditugun foru aginduen edukia atzera bota dezan eta deialdi horiek aurtengo martxoaren 22an onetsitako aginduetan ezarritakoaren arabera ebatz ditzan."

Iruñean, 2012ko urriaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona guztientzat ziurta dezan GIBaren probak egiteko aukera.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2012ko urriaren 17an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona guztientzat ziurta dezan GIBaren probak egiteko aukera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan GIBaren infekzioari buruzko proba diagnostikoetarako sarbidea unibertsala izanzen dela.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan GIBaz kutsatuta dauden eta gure Komunitatean bizi diren pertsona guztiek osasun laguntza eta tratamendu-

rako sarbidea izanzen dutela edozein dela ere haien aseguruatua izatera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du IHESari buruzko programa sendotu dezan, hura hornituz osasun-sustapeneren esparruan, beharrezkoak diren giza baliabideez eta baliabide ekonomikoez hornituz eta Gizarte Politiketako Departamentuarekiko nahiz esparru horretan lan egiten duten kolektibo zibilekiko lankidetzat ziurtatuz, beharrezkoa baita.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu foru legea garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko behar adina arau eman ditzan, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz."

Iruñean, 2012ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen presta dezan bitartekaritza plan bat, hipoteka ordaindu ezin duten familien etxebizitza-utzarazpenen prebentziorako.

SUSTAPEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2012ko urriaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen presta dezan bitartekaritza plan bat, hipoteka ordaindu ezin duten familien etxebizitza-utzarazpenen prebentziorako."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea presaz bitartekaritza plan bat egin dezan, beren egoera ekonomikoaren ondorioz hipotekaren ordainketari aurre egin ezinik dauden familien etxebizitza-utzarazpenei aurrea hartzeko.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea batzorde misto berezi bat sor dezan. Batzorde horretan honakoek hartuko dute parte: gobernuko ordezkariak, finantza entitateak, kaltetuen elkarteak, kaudimengabeziako egoera ustekabekoan edo nahi

gabekoan dauden familien utzarazpenekin lotutako arazoak ezagutzen dituzten bestelako erakunde sozialak eta justizia administrazioako ordezkariak. Batzorde horren helburu nagusia da aztertzea zein neurri hartu behar diren utzarazpenak saihesteko, bai eta haiei aurrea hartzeko ere, edo, bestela, kaltetutako familiei ostatu duina eman dakien bermatzea, etxebizitza sozialen programak indartuz.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea administrazio guztiekin batera lan egin dezan, estatukoa nahiz udaletakoak, behar diren neurriak erabaki eta adoste aldera ustekabeko kaudimengabezia-egoeran eta nahi gabekoan dauden familien etxebizitza-utzarazpenak saihesteko eta familia horiek ostatua izateko aukerak eskaintzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakutsi nahi dio Hipotekek Kaltetutako Plataformak bultzatu duen legegintzako herri-ekimenari."

Iruñean, 2012ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloan lanaldi-luzapena aplikatzearekin zerikusia duen orotan kontuan har ditzan esparru bakoitzaren ezaugarriak.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloan lanaldi-luzapena aplikatzearekin zerikusia duen orotan kontuan har ditzan esparru bakoitzaren ezaugarriak"

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2012ko urriaren 17an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko urriaren 5eko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lantaldea, 2012ko Gabonetako aparteko lansaria kentzeari buruzko ekimen parlamentarioak direla-eta dauden aukera desberdinak aztertzea.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin lantalde bat sortzeko erabakia, 2012ko Gabonetako aparteko lansaria kentzeari buruzko ekimen parlamentarioak direla-eta dauden aukera desberdinak aztertzea. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsi zuen, 2012ko urriaren 24an egindako bilkuran. Hona testua:

“1. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean lantalde bat eratzea, 2012ko Gabonetako aparteko lansaria kentzeari buruzko ekimen parlamentarioak direla-eta dauden aukera desberdinak aztertzea.

2. Adieraztea jakinaren gainean dagoela parlamentu-taldeek eldedunek lantaldeko kideak eta haien ordezkokoak izendatzeari buruz:

UPN	Titularra: Ordezkoa:	Javier Caballero Martínez Coro Gainza Aznárez
SP	Titularra: Ordezkoa:	Roberto Alli Jiménez Juan José Lizarbe Baztán
NaBai	Titularra: Ordezkoa:	Patxi Zabaleta Zabaleta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano
Bildu	Titularra: Ordezkoa:	Víctor Rubio Martínez Koldo Amezketa Díaz
PP	Titularra: Ordezkoa:	Eloy Villanueva Cruz Ana Beltrán Villalba
I-E	Titularra: Ordezkoa:	Txema Mauleón Echeverría Marisa De Simón Caballero

3. Adieraztea lantaldea gaur eratu dela.

4. Xedatzea lantaldeak bere lana hasiko duela zuzenketak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egun baliodunear.”

Iruñean, 2012ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lantaldea, Nafarroan dauden parte-hartze demokratikorako moduen egungo egoera aztertzekoa.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

2012ko urriaren 24an, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak baztertu zuen Ezkerra parlamentu-taldeak eginiko proposamena, Nafarroan dauden parte-hartze demokratikorako moduen egungo egoera aztertzeko lantalde bat sortzekoa.

Iruñean, 2012ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2012ko urriaren 19an onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko agintzen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2012ko urriaren 19an onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2012ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2012ko urriaren 19an onetsitako erabakiak

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du industria plan bat eta gazteentzako enplegu plan bat egin eta ezar ditzan, eta haietan denboraren eta lurraldearen ikuspuntutik helburu zehatzak jaso ditzan. Plan horietan, beste neurri batzuen artean, jasoko da enpresen finantzaketa errazteko tresnen sorrerari dagokiona; onura fiskalak berri eta birformulatuko dira; eta epe labur eta ertaineko jarduketak programatuko dira, gazteei zuzendutako enpleguaren sorrera errazteko. Plan horiek bi hilabeteko epean egingen dira, eta Parlamentura igorriko dira, eztabaidatu eta onets ditzan.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errentaren eta ondarearen gaineko zergen lege-aldaketak susta ditzan, errenta altuenengatiko eta fortuna handiak dituztenen ondarearengatiko zerga-ordainketa handitzeko, eta iruzur fiskalaren aurkako estrategia berri bat egin dezan.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure osasun sistema nazionalaren —eta, horrenbestez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren— izaera publiko, unibertsal, doako eta kalitatekoa defenda dezan,

herritar guztiei osasun laguntza baldintza beretan ematea bermatzeko, Osasunari buruzko Lege Orokorrean, Osasun Publikoari buruzko Legean eta Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Legean jasota ageri den bezala.

Nafarroako Parlamentuak koordainketako (berrordainketa) formulak errefusatzeko osasun- edo farmazia-laguntzarako, bai eta larrialdikoa ez den osasun-garraiorako ere, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du bere esku dituen tresna guztiekin defenda ditzan alor horretan dauzkagun eskumenak, eta egokitzat jotzen dituen lege-formula guztiak bila ditzan eredu unibertsal, doako eta kalitatekoa lehenesteko PPren Gobernua krisiaren aitzakiarekin erakundeetara eramaten ari den ereduaren aurretik.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki proposamen hau onetsi eta sei hilabeteko epean GAZTE-ENTZAKO ENPLEGU PLAN BAT artikula dezan, berehalako plan gisa. Plan horrek, gutxienez ere, honako elementuak hartuko ditu kontuan:

Langabezia egoeran dauden gure gazteen ezaugarri eta baldintzak identifikatzea: prestakuntza mota, titulaziorik duten ala ez duten eta titulazio hori norainokoa den, eta zein lan-sektoretatik datozen, aurrez lan egin baldin badute.

Gazteentzako balizko enplegu-zokoak identifikatzea, jarduera-sektore desberdinetan.

Identifikatutako segmentu bakoitzerako ekin-tza-eskaintza bat: lanean berrorientatzeko berri-azko prestakuntza, bekak, enpresei laguntzak ematea haiek kontratazioan lehenesteko, gazteen enpresa-ekintzailetzarako laguntza bereziak, ekimenak finantzatzea eta jarduera batean hastearen ondoriozko arriskuak estaltzea.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du hezkuntzaren aldeko apustua egingen

duela, herritar libre eta arduratsuek osatutako gizarte bat garatzeko funtsezko tresna gisa, eta Nafarroako Gobernuaren premiaz du bere eskumenez baliatuta defenda eta indar dezan hezkuntza sistema publikoa, aukeren berdintasunaren, gizarte kohesioaren eta inklusioaren bermatzaile gisa; izan ere, horiek gure gizartean presente egon behar duten funtsezko elementuak dira, eta gure hezkuntzaren oinarria izan behar dute.

Illo horretatik, bere ikastetxeei behar bezalako zuzkidura eman beharko die, guztiek eskolan arrakasta izan dezatela bermatzen duen kalitatezko hezkuntza bat eskaintzeko, behar diren bitartekoekin; halaber, ahalegin bereziak eskatzen dituzten pertsonentzako eta eskualdeentzako oreka bermatu beharko du.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du sinesten duela egungo politika murriztaileak alde batera utzi behar direla, zeren eta egoera ekonomikoa okertzen lagundu besterik ez baitute egiten, eta zikloaren aurkako neurriak hartu behar direla, ekonomia berrabiatzeko eta enplegua sortzeko. Halaber, jotzen du beharrezkoa dela sistema fiskal ekitatibo, progresibo eta birbanatzaile bat edukitzea, gizarte prestazioen sistema aurreratu bati sostengua emanen diona.

Halaber, beharrezkoa da Nafarroako nekazari eta abeltzainen premia larriari kasu egitea.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak adierazten du ez duela inolako konfiantzarik ez Gobernuaren lehendakari Yolanda Barcina andrearengan, ez eta haren gobernuarengan ere, jotzen baitu ezgauza direla gehiengo sozialarentzat behar bezala eta modu onuragarrian konponbidea emateko gure erkidegoak bizi duen krisi ekonomikoa, sozial eta enpleguaren egoera larriari.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak, era berean, hezkuntzaren eta osasunaren arloko murrizketak errefusatzeko, bi arlo horiek, aurreko garaian, ongizatearen estatuaren zutarrak izan baitira, gizarte politikekin batera. Murrizketak, izan ere, astero-astero ezartzen ari dira foru erkidegoan.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du guztiz errefusatzeko duela gure eskumenean urratze jarraitua, zeina PP Espainiako Gobernutik aplikatzen ari baita errege lege-dekretuaren prozeduraren bitartez, jokamolde hori Nafarroako autogobernuaren sakonki mugatzen edo galarratzen ari baita.

Nafarroako Parlamentuak gure erabateko autogobernuaren aldeko eta garatzeko konpromisoa adierazten du, eta autogobernuaren sakontzeko apustu sendoa egiten du, sinetsita baitago funtsezko tresna dela Nafarroaren garapen sozial, ekonomikoa eta demokratikorako.

Hamargarrena. 1.- Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du Yolanda Barcina Angulo andrea buru duen Nafarroako Gobernuaren politika ekonomikoren porrota. Politika ekonomikoa horren ondorio dramatikoak langabezia tasa onartezinetan aurki daitezke.

2.- Nafarroako Parlamentuak jotzen du beharrezkoa eta presakoa dela honako zutarrietan oinarritutako den ordezkio politikoa ekonomikoa bat ezartzea:

Ordezko politika fiskal berri bat, zeinak egiazko erabakitasunez iruzurraren aurkako borroka eragin-korrari ekin, aberastasunaren birbanaketan sakondu, progresibotasuna areagotu eta egungo enpresa-etekin nahiz etekin espekulatiboaren eta errenta handien pribilegioak deuseztatuko baititu. Zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezko batzuen finantziarioa bermatuko duen politika fiskal berri bat.

Gasturako eta aurrekontu-betetzarako irizpideen definizio berri bat, zerbitzu publikoen eta justizia soziala bermatuko duten politika sozialaren finantziarioa lehenetsiko duena, bai eta dinamismo ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sortzen duten inbertsio publiko produktiboak ere, goi karguen prebenda justifikazinetan egiten den gastuaren aurretik, eta inongo itzulkin ekonomikoa, sozial eta ingurumeneko justifikaturik ez dakarten azpiegitura garestien aurretik.

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren aldeko apustu irmo eta konprometitua, Nafarroako herritarren balio erantsi lehiakor onena direlakoan. Halaber, I+G+B publikoaren zerbitzura jarritako baliabideak biderkatzearen aldeko apustu irmo eta konprometitua.

Berehala hastea formula eraginkorrak aztertu eta aurkitzeko prozesu bat, formula horien bidez laster aktibatze gure enpresa eta autonomoentzako finantziario zerbitzu bat, banka publiko batek berezko dituen zerbitzuak emanda, Nafarroako Aurrezki Kutxa desagertu ondoren.

Hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak bake eta normalizazio politikoko prozesuarekiko bere konpromisoa adierazten du, bai eta adiskidetzeko sozialarekiko eta bizikidetasunarekiko, demokraziarekiko eta pertsona eta kolektibo guztiei dagozkien eskubide guztiak betetzearikiko konpromisoa ere.

Hamabigarrena. 1.- Nafarroako Parlamentuak jotzen du guztiz arduragabea dela Nafarroako Gobernuaren lehendakari Barcina andrearen jarduna, eragingabe, hautsi eta gutxiengo izatera pasa dela frogatu den gobernu baten buru gisa aurrera eramane duena.

2.- Nafarroako Parlamentuak egiaztatzen du UPNren egungo Nafarroako Gobernua ezgauza dela Nafarroako gizartearen arazoei konponbidea emateko.

Hamahirugarrena. 1.- Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Yolanda Barcina Angulo andrea buru duen Nafarroako Gobernuak bere kudeaketan dauzkan iluntasuna eta gardentasun falta.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere konpromiso demokratikoa herritarrei dagokien informazio eskubidearekin eta adierazten du jarduteko borondatea duela gizarteari eta haren parlamentu-ordezkariei ukatzen zaien informazio eskubidea bermatze aldera.

Hamalauugarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du konpromisoa hartzen duela Nafarroako foru araubidea defendatu eta babesteko, zeina oinarritzen baita Foruaren Hobekuntza Legean, Espainiako Konstituzioan aitortua izan den eta gure erkidegoarentzat azken hiru hamarkadetan aurrerapenerako eta ongizaterako tresna izan den horretan.

Hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak berresten du Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea indarrean dagoela guztiz, eta konpromisoa hartzen du hura oromenaren kontzeptua gehituz indartzeko, horrela terrorismoa prebenitzeko eta haren biktimek utzi diguten eredu babestu, mantendu eta zaintzeko.

Hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du kontusail finko baten bitartez –exekuzioa deuseztatzeko aukerarik gabe– familientzako laguntza ekonomikoak bermatzeko; bereziki, familia ugarietara eta baliabiderik gabekoei dagokienez.

Hamazazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa adierazten du enpleguaren sorrera eta berrabiatze ekonomiko babesteko, ondokotatik eratortzen diren baliabideekin:

2012an erreforma fiskal bat onestea, errenta altuen, kapitaleko errenten, ondare handiak dituztenen eta enpresa handien zergak handitzeko, eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

Banka publiko bat sortzea, Nafarroako garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzura.

Hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakusten die langileek eta herritarrek murrizketa sozialen eta eskubide-murrizketen aurka eginiko mobilizazioei, eta adierazten du beharrezkoa dela politika neoliberalen aurkako gatazka sozialak orokorrak, solidarioak eta bateratuak izan daitezela.

Hemeretzigarrena. Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso irmoa erakusten du zerbitzu publikoak –hezkuntza, osasuna, menpekotasuna eta gizarte zerbitzuak– indartu eta lehenesteko, enplegu publikoaren bitartez, herritarrentzako arreta unibertsala bermatze aldera, beren oinarritzko beharrak asetzeari dagokionez.

Hogeigarrena. Nafarroako Parlamentuak aitortzen ditu Nafarroako aniztasun politiko, sozial, linguistiko eta identitarioa, gure erkidegoaren elementu aberasgarriak direlakoan, eta apustu egiten du, halaber, elkarrenganako errespetua eta identitatearen arloko inposaketarik eza bezalako printzipioen defentsaren alde, eta pertsona guztiek hizkuntza, identitatea, aniztasun politiko eta aniztasun soziala direla-eta dauzkaten eskubideak bermatzearen alde.

Hogeita batgarrena. Nafarroako Parlamentuak berriro adierazten dizkie terrorismoaren biktimei bere babesa, ulermena eta elkartasuna, eta aitortzen die demokraziak haiekin duen betiereko zorra, askatasunaren eta justiziaren aldeko borroka ikur iraunkorra baitira.

Hogeita bigarrena. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du defizitaren helburua betetzearekin, hori ezinbestekoa baita gure ekonomiarekiko konfiantza berreskuratzeko; halaber, enplegu-sorrera erraztera bideratutako neurrien bitartez ekonomiaren lehiakortasuna areagotzea eta politika sozialen eta zerbitzu publikoen finantziarioa bermatzea ahalbidetzen duten politiken aldeko apustua adierazten du.

Hogeita hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak, beste behin, bere konpromisoa erakusten du autogobernuarekin eta Nafarroako Foru Komunitatearen jatorrizko eskubide historikoekin, Nafarroako foru errenta berrezarri eta hobetzei buruzko Lege Organikoaren eta Espainiako Konstituzioaren esparruan.

Hogeita laugarrena. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du arrazionalizazio administratiboarekin, traba burokratikoak deuseztatzearekin eta araudia eta haren prozedurak sinpletzearekin, bikoiztasunak saihesteko eta administrazioak kostu txikiagoa izan dezan herritarrentzat.

Hogeita bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arlo fisikalean daukagun eskumena dela-eta Espainiako Gobernuari eska diezaion gure erkidegoak Econfinen lantaldearen bileretan parte hartzea, hitzarmen ekonomikoan eragina izan dezaketen gaiak eztabaidatzen direnean, Foruaren Hobekuntzako 65. artikuluan ezarritakoari jarraituz.